



**JUNTA DEL VALLE DE AEZKOA
AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIA**

Ariben, 2020ko ekainaren 19an, arratsaldeko zazpiak eta hogeita hamarreen, Aezkoako Batzarre Nagusiak, bilkura arrunta egin zuen, lehenengo deialdian, legez deituta, haren presidente titularrak zuzenduta eta jarraian adierazten diren kideak bertan zirela, eguneko honako gai hauek aztertzeko:

BERTARATUTAKOAK

Presidente jauna: Karlos Bueno Reka

Batzarrekide jaun-andereak: Anchorena, Francisco Javier - Apat, Javier - Galarza, M^a Carmen - Marrondan, Mikel.

LEHENA.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONETSI.

Eragozpenik agertu ez denez, onetsita gelditu da 2020ko maiatzaren 19ko akta.

BIGARRENA.- OIHAN ENKANTEA (2020KO PLANA)

Jakinarazi da 2020ko planari dagozkion oihan-loteak saltzeko deitutako enkantea hutsik geratu dela. Maderistekin hitz egitea pentsatu da, proposamenik bat aurkeztu nahi duten jakiteko; Mendien Zerbitzuarekin ere hitz eginen da, egungo egoera eta pinu loteak erosteko interesa dagoela kontuan hartuta, aurtengo lote bat hurrengo ekitaldirako aurreikusita dagoen pinu lote batekin aldatzeko (une honetan markatzen amaitzen ari direna), Mendien Zerbitzuak erantzuna ematen duenean, berriro aztertuko da gaia.

HIRUGARRENA.- IRATIN JARDUTEKO PROTOKOLOA. LANGILE BERRIAK SARTZEA.

Arrazolako informazio-gunea irekitzeko Iratin jarduera-protokoloa egin ondoren, gaur egun zerbitzuan dauden eta ekainaren 12an lanean hasi ziren langileekin hitz egin da, baina oraingoz ez da informazio-gunea ireki. Haiekin batera protokoloa aztertu zen eta hura aldatzeko proposamen batzuk utzi dira, gainerako langileen laneratzearen eta egoeraren bilakaeraren arabera egokitzapenak egitea aurreikusten den arren.

Langileek deskontu txartelak deuseztatzeko eta kobrantza txartel arruntak izateko proposamena egin dute, hainbeste txanpon ez erabiltzeko eta eskualdean turismoa erakartzeko eta bertan kontsumitzeko helburua betetzen ez duela uste dutelako. Proposamen hori, nolana ere, haraneko turismo-sektorearekin eta Zaraitzuko Batzordearekin adostu beharko da; Batzorde horrekin izandako azken bileran, tasen igoerarako proposamena ere egin zuten: txartel arrunta 5 eurotik 7 eurora igotzea pentsatu zen, eta deskontuarena, berriz, 2 eurotik 3ra (ibilgailuentzat); eta, proportzioan, motor eta autobusentzat.

Aurten ez litzateke posible izanen, eta, beraz, datorren urterako aztertuko da, kontuan hartuta oso litekeena dela Nafarroako Gobernuaren finantzaketa lerroak orain artekoak baino txikiagoak izatea.

Zerbitzuari dagokionez, Zaraitzuko Batzordearekin hitz egin zen ordutegi homogeneous ezartzeaz, itxiera-ordutegia 18: 00etan izan dadin (jende gehien biltzen den aldietan), eta, edozein modutan, zerbitzua unean uneko egoerari egokitzea. Erori zen zubiari dagokionez (SL-53 ibilbidearen barnean dago), jakinarazi zuten aurrekontuak eskatuko zituztela, konpontzeko modurik dagoen eta Poctefa proiektuan sar daitekeen ikusteko (gauzatu ezin izanen duten beste inbertsio baten ordeztu egiten litzateke). Une honetan gaia geldirik dago, proiektua osorik gauzatzeko luzapena ematen duten ikusi arte; izan ere, ekainaren 30ean amaitzea aurreikusita zegoen, eta alarma egoeraren ondorioz tramite guztiak gelditu direlako.

Bestalde, Iratiko Informazio eta Zaintza Zerbitzuari dagokionez, Nafarroako Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskaintza bat egitea erabaki da, zerbitzuak dakartzen beharrei erantzuteko kontratazio-zerrenda bat osatzeko.

Lanpostua Administrazioako D mailaren pareko soldatarekin ordainduko da, gehi mailaren % 12ko osagarria eta % 2,7ko lanpostu-osagarria. Lan egindako jaiegunei dagokien osagarria ere ordainduko da. Sartzeko baldintzak aurreko deialdietan izandako berberak izanen dira. Hautaketak hiru fase izanen ditu:

1.- Merezimenduen balorazioa. - 10 puntu, gehienez.

Eskaintako lanpostuen antzeko lanpostuetan izandako esperientzia puntuatuko da, gehienez ere 10 punturekin, baremo honen arabera:

- Edozein erakunde publiko edo pribatutan turismo-informatzaile gisa lan egindako 2 hilabeteko, puntu 1, 10 puntu gehienez.
- Turismo-sektorearekin eta natura-ingurunearekin lotutako lanpostuetan lan egindako 4 hilabeteko: puntu 1, eta gehienez 6.
- Zuzenean jendaurreko lanpostuetan lan egindako 6 hilabeteko: puntu 1, gehienez 4 puntu.

2- Proba teknikoa - Gehienez, 50 puntu.

Test erako proba teknikoa izanen da, lanpostuan bete beharreko eginkizunei buruzko ezagutzei buruzkoa.

Osoko Bilkurak gai-zerrenda bat ezartzea erabaki du, eta galdera hauek izanen ditu hizpide: Aezkoako Batzarre Nagusia: antolaketa, funtzioak eta eskumenak; Aezkoako Batzarre Nagusiaren ordenantzak: Ordenantza Orokorra, pisten erabilera arautzen duen ordenantza, aprobetxamendu naturalen ordenantza; Irati mendia: ezaugarriak, baliabideak, landareria eta fauna; Aezkoako Mendiak: aprobetxamenduak; Aezkoa: baliabide turistikoak; Pirinioetako baliabide nagusiak; Poctefa Sascirati2015: Efa063/15 proiektua; koronabirusaren krisialdia: alarma egoera, deskonfinamendua, neurri higieniko-sanitarioak; Langileen Estatutuaren Legea eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako lan-kontratuko langileen Hitzarmen Kolektiboa.

3- Proba praktikoa - Gehienez 40 puntu

Lanpostuei dagozkien eginkizunekin lotuta epaimahaiak planteatzen dituen kasu praktikoei erantzutea izanen da.

Euskarabidearekin kontsultatu da frogagiririk aurkezten ez dutenentzat euskara-mailaren proba egiteko data posiblea, eta uztailearen 3rako jarri da. Beraz, eskaerak aurkezteko epea uztailearen 1eko 13:00ak artekoa izanen da. Proba teknikoak hilaren 6an egingen dira. Izendatutako epaimahaia aurreko urteko bera da, eta Turismoko Marketing Zerbitzuak eta Garapen Agentziak baieztatu dute epaimahaia bertan egonen direla.

LAUGARRENA.- OIHAN LOTEAK ATERATZEA, ORREGAGAKO PISTAN BARN: KOLEGIATAK EGINDAKO PROPOSAMENA

2019ko azaroan, euriteek kalte handiak eragin zituzten inguru honetan, Aezkoako Mendietako oihan eta abeltzaintza pistetan, bereziki. Kaltetuenetako bat Itolatzekoa izan zen; izan ere, lur-jausi bat gertatu zen ezponda-zati batean, pista horretan orain arte gertatu den handiena. Urtarrilean, Itolatzeko kalteak konpontzeko proiektu bat idatzi zen. Proiektu horren jarduketa nagusia pista egonkortzeko harri-lubeta bat eraikitzea da. Proiektu hori oso garestia da, eta tramitatzea denbora luzeko kontua izanen da, hainbat erakunderen baimena behar delako, Ebroko Konfederazio Hidrografikoarena, besteak beste. Proiektua Nafarroako Gobernuari aurkeztu zitzaion, kalte horietarako berariazko laguntzak eskatzeko. Baldintzatzaile horietaz gain, Covid-19aren krisialdiak jarduera, epe eta abar geldiarazi ditu; horrenbestez, gaur egun ezin izan dugu nahi beste aurrera egin planteatutako konponketekin, eta, gainera, pista ibilgailu txikiak baino ezin dira ibili.

2018. urtean, Batzarre Nagusiak bi baso-lote esleitu zizkion Maderas Larretari, bat Lasarte inguruan eta bestea Nabala inguruan; bi loteen kasuan aurreikusita zegoen egurra ateratzea Itolatzeko pista barna. Gaur egun, ordea, ezinezkoa da hori, pistak ez duelako baldintza egokirik: ezponda erori den tartean ezin da kamiorik pasa, eta, gainera, ez luke eramaten ohi duen zamarik jasanen. Maderas Larretak bi loteen ustiapena 2020. urtean hasi eta amaitzeko asmoa du. Era berean, eta maderistari irtenbide bideragarri bat eman ahal izateko, Batzarre Nagusiak eskaera bat aurkeztu zion Orreagako Errege Kolegiatari, Nabala eta Orreaga lotzen dituen pista erabil zezaten adierazitako baso-loteen ustiapenari dagokion zura garraiatzen duten kamioiek. Garraiatu behar denaren bolumena, 3.225 m³ eta 2.865 m³ dira, hurrenez hurren.

Bilera bat egin zen Priorearekin, administratzailearekin, Orreagako alkatearekin eta kolegiatako baso-ingeniariarekin, eta eskaera azaldu zitzaion. Kolegiataren erantzuna izan da pasatzeko baimena Batzarre Nagusi honetara bidalitako proiektu batean islatu diren konponketen baldintzapean egonen litzatekeela, beharrezkotzat jotzen baitira egurrez kargatutako kamioiekin zirkulatu ahal izateko. Kolegiatak bidalitako proiektuaren zenbatekoa hogeita hemeretzi mila seiehun eta zortzi eurokoa da (39.608,00 €); horretaz gain, egurrezko metro kubiko bakoitzeko 3,00 euroko kanona ordaintzeko eskatu diote Batzarre Nagusiari, hau da, 18.270,00 €. Hau da, Elkargoko pistetatik ateratzeko kostua 57.878,00 eurokoa izanen litzateke. Kolegiataren ustez, Batzarre Nagusiak diru-laguntza eskatu ahal izanen luke jarduera horretarako;

izan ere, Kolegiata erakunde publikoa ez denez, finantzaketa-lerro txikiagoak ditu.

Proposamen hori jaso ondoren, Aurizko Udalarekin ere hitz egin zen, duela gutxi Garraldako bi lote pistetatik ateratzeko baimena eman ziolako, 3.500 euroko tasa ordainduta eta eragin zitezkeen kalteak konpontzeko konpromisoren truke. Hala ere, une honetan ezin dute lote horietarako erabilera baimendu, laster hasi behar baitituzte ekitaldi honetarako baso-jarduketan proiektuan sartutako hainbat zati hormigoiztatzeko lanak.

Batzarre Nagusiak uste du Kolegiatak aurkeztu dituen zenbatekoak gehiegizkoak direla eta entitate honek ezin dituela bere gain hartu, aurrekontu-arrazoiengatik ez-eziz, loteen zenbatekoarekiko duen proportzioagatik. Proiektua hurrengo urteko baso-lanetarako laguntzetara aurkezteko aukera badago ere, beti izanen litzateke hirugarren baten azpiegitura hobetzeko jarduketa, eta baimendu egin beharko litzateke (exekutatzen hasteko epeak kontuan hartu gabe). Horrenbestez, ezinen litzateke lana egin proiektuari baimena eman arte.

Azaldutakoagatik, Batzarre Nagusiko Osoko Bilkurak erabaki du Orreagako kolegiatak bere pistak erabiltzeko egindako proposamena ezestea, eta basoa ateratzeko beste aukera batzuk aztertzea. Lehenik eta behin, maderistarekin hitz eginen da, horrek beste aurreikuspenik egin dezakeen ikusteko.

BOSGARRENA.- URTEKO AURRIKUSPEN EKONOMIKOA

Deitutako baso-enkantea hutsik gelditu ondoren, eta loteak saldu ahal izanen diren ziurtasunik ez dagoenez, urtean zehar aurreikusitako gastu eta diru-sarreraren zerrenda aurkeztu da, onartutako aurrekontua gauzatzeari dagozkionak. Aurtengo diru-irteera handiena POCTEFA proiektuaren exekuzioari dagokiona izanen da, inbertsio gehienak egin baitira; beraz, kontuan hartu behar da likidezia kalkulatzeko eta gainerako partidak gauzatzeko.

Aurreikuspenak berrikusi dira eta datuak hileroko eguneratuta mantentzea adostu da, hurrengo bilkuretan berrikusi daitezzen.

SEIGARRENA.- 2019KO KONTUAK

2019ko ekitaldiari dagokion behin betiko kontu-espedita berrikusi da. Aurreko bilkuran aurkeztu zen, mahaikideek onartzeko nahikoa denboraz azter zezaten. Urteko partidak eta emaitzak azaltzen dira. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 305. artikuluan xedatutakoa betez, jendaurrean jarriko da, hamabost eguneko epean, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aztertu ahal izan ditzaten eta egoki iritzitako erreklamazioak egin ditzaten. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, kontuak behin betiko onartutzat hartuko dira. Hona hemen kontuen laburpena:

Gastuen kapitulua

Kap	Izena	Aurrikuspena	Aitortutako betebeharrak	%
-----	-------	--------------	--------------------------	---

1	Langile gastuak	233.620,00	224.276,49	96,00
2	Ondasun arrunt eta zerbitzuen gastuak	225.330,00	134.197,85	59,56
3	Finantza gastuak	0,00	0,00	0,00
4	Transferentzia arruntak	44.750,00	30.923,07	69,10
6	Inbertsio Errealak	309.300,00	85.102,16	27,51
7	Kapital Transferentziak	0,00	0,00	0,00
8	Finantza Aktiboak	0,00	0,00	0,00
9	Finantza Pasiboak	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA		813.000,00	474.499,57	58,36

Diru-sarrerak

Kap	Izena	Aurrikuspena	Aitortutako eskubideak	%
1	Zerga zuzenak	0,00	0,00	0,00
2	Zeharkako zergak	0,00	0,00	0,00
3	Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerak batzuk.	78.500,00	66.771,15	85,06
4	Transferentzia arruntak	137.300,00	141.864,35	103,32
5	Ondareagatik sarrerak / Komunalaren aprobetxamendua	394.200,00	313.220,64	79,46
6	Inbertsio errealeen salmenta	0,00	0,00	0,00
7	Transferentziak / beste diru-sarrerak	203.000,00	76.141,81	37,51
8	Finantza aktiboak	0,00	0,00	0,00
9	Finantza pasiboak	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA		813.000,00	597.997,95	73,55

Diruzaintzako laburpena:

Kobratutakoak		Ordaindutakoak	
Aurrekontu arrunta	358.145,58	Aurrekontu arrunta	440.355,26
Itxitako aurrekontua	256.266,52	Itxitako aurrekontua	17.932,24
Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	17.918,32	Aurrekontuz kanpoko gastuak	35.188,19
Barne mugimenduak	15.517,00	Barne mugimenduak	15.517,00
KOB RATUTAKOAK, GUZTIRA	647.847,92	ORDAINDUTAKOAK, GUZTIRA	508.992,69
Hasierako izakinak	79.113,58	Bukaerako izakinak	217.968,81

Ekitaldiko aurrekontu-emaitza doituia 56.253,46 €da, aurreko ekitaldikoa baino handiagoa (34.191,60 €).

Diruzaintzako gerakinaren egoera honako hau da:

- Finantzazio atxikia duten gastuengatik diruzaintzako gerakina: 49.444,24 €
- Atxikitako baliabideengatik diruzaintzako gerakina: 29.390,61 €
- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina: 333.662,14 €

ZAZPIGARRENA.- GIZARTE EKINTZAKO PARTIDA: ERABILERA

Aztertu da partida horren zati bat bideratzea Estatuak Alarmaren Egoera deklaratuak hartutako neurriek eragin dituzten jarduerak geldiaraztearen ondorioz kaltetuak izan diren familiei laguntzeko. Orain arte, eta Toki Administrazioako Departamentuak emandako gomendioei jarraituz, erakunde honek hartu behar izan dituen erosketak eta segurtasun-neurriak partida honetan kontabilizatu dira, eta, beraz, dagoeneko agortuta dago.

ZORTZIGARRENA.- HAINBAT

- Batzarrekidetakako hauteskundeak

Hauteskunde deialdia irailean egitea adostu dute. Hurrengo bilkuran zirriborroa aurkeztu eta deialdia onartuko da.

- Turismo Bulegorako informatzaile lanpostua

Egungo egoera kontuan hartuta, Osoko Bilkurak erabaki du Arike bulegoan turismo-informaziorako lanpostua uztailearen 31tik azaroaren 2ra bitartean kontratatuko dela. Deialdiaren oinarriak akta honen eranskin gisa jaso dira.

- Garraldako Udalak sustaturiko LGTBI ekimena

Garraldako Udalak igorritako gonbitea jaso da, LGTBI harrotasunaren Nazioarteko Egunean eginen diren ekitaldietara joateko. Ekitaldi horiek Garraldako plazan eginen dira, 2020ko ekainaren 28ko 13:00etan. Osoko Bilkurak erabaki du erakunde horren ordezkari bat bertaratzea.

- Ondare Historikoaren Zerbitzuak bidalitako dokumentu bat aurkeztu da, kultura-ondarearen, ondare materialaren eta ondare immateriala balorean jartzeari buruzkoa, Aezkoa haranerako garapen jasangarrirako aukera gisa. Dokumentu horretan lurraldearen balioari buruzko ideiak aurkezten dira. Batzarre Nagusiaren ustez, guneen berrantolaketa aztertu eta Batzarre Nagusiaren ekarpenak prestatu behar dira; horretarako, Jauregiari buruzko bilera monografiko bat deituko da.

- Foresna-ko biltzar orokorra

Ekainaren 2an Batzar Orokorrerako deialdia egin da, honako puntu hauek aztertzeko: 2019ko kontuak, 2019ko jardueren aurkezpena eta memoria, Zuzendaritza Batzordeko karguak berritzea. Batzarre Nagusia jakinaren gainean dago.

- Bidausiko biltzarra

2019ko kontuak eta 2020ko aurrekontua aurkeztu dira. Edukiontzien guneak txukuntzeko inbertsio bat egitea planteatzen da, eta mankomunitateak materiala ordaintzea eta herri bakoitzak eraikuntza gauzatzea proposatuko diete herriei; era berean, eskariaren arabera herrietan jartzeko paperontziak jarriko dira. Aurizberriko nabea aurreikusitako inbertsioa luzerako izanen da.

Nabarmendu da Mankomunitateak onartu duela, koronabirusaren krisialdia dela eta, Alarma Egoeraren bitartean itxita egon diren establezimenduei ez zaiela aldi horri dagokion mankomunitatearen tasa kobratuko; Nafarroako Partzuergo Orokorren tasari dagokionez neurri bera hartzeko eskatu zen, baina Nafarroako Gobernuo zerbitzu juridikoek jakinarazi dute ez dela bideragarria eta, beraz, ez dela aplikatuko.

- Zuntz optikoa.

Gaur egun zuntz-hedapenik ez duten bailarako udalekin bilera bat egin zen, eta sarea zabaltzeko dauden bi proposamenetatik, Sisnetek aurkeztutakoaren alde agertu dira. Proposamena formalki aurkezteko eskatuko da, eta gogoraraziko zaio aurreko bileretan adierazitako konpromisoak jasota gera daitezela.

- NEZ-ko langileak

Orain arte, bi udalek eskatu dute Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren diru-laguntzarekin Batzarre Nagusiak kontratatzen dituen langileen lanaldiak erabiltzea.

- Opossarena izandako Aribeko nabea

Nasuvinsak Aribeko Oposako nabe zaharra egokitzeko obra kontratatuko du, nabean lurzatiak egokitzeko. Lurzatietako bat taberna-denda gisa erabiliko da. Etxea zen zatia profesionalentzako bulegoak egiteko erabiliko da.

- Beilatokiak

Jakinarazi da Udalbiltza landaguneetan beilatokiak edukitzeko aukera aztertzen ari dela; gaia aztertzeko zenbait bilkura izan dira Erroibar-Aezkoa eremuko administrazioekin.

BEDERATZIGARRENA.- GALDE-ESKEAK.

Ez dira gertatzen

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, bilkura amaitutzat eman da, gaueko hamaikak zirela. Akta hau egin da, eta nik, idazkariak, ziurtatu egin dut.